



ARANTZAKO UDALA

www.arantza.eu

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
☎ 948 634 005
☎ 948 634 192
arantza.udala@terra.es

2012KO URTARRILAREN 13KO BILERAREN AKTA

Organoa: Udalbatza.

Batzarra: Ohiko bilera.

Deialdia: Lehenengoa.

Eguna: 2012.01.13.

Ordua: Arratsaldeko 19:00etan.

Tokia: Herriko Etxeko areto nagusia.

Bertaratuak:

Alkatea: Jaime Iturria Mitxelena jn.

Zinegotziak:

Imanol Artola Guridi jn.

Ander Almandotz Indakoetxea jn.(3. puntuan sartu da).

Jose Ignacio Madariaga Vergara jn.

Koldobike Gorostiza Uriguen and.

Jose Fco. Javier Mitxelena Ordoki jn

Bertaratu ez direnak:

Inor ere ez.

Idazkaria:

M. Jose Larraioz Ariztegi and.

Aztergaiak:

- 1.-Azkeneko aktaren onespena.
- 2.-Alberto Etxebeste Aizpiolea jaunari jarritako zehapen espedienteari buruz.
- 3.-Bortzirietako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea: ordezkari berriaren izendapena.
- 4.-Arantzako ehiza barrutia:ordezkarien izendapena.
- 5.-2012ko aurrekontua eta plantilla organikoa: hasierako onespena.
- 6.-Alkatearen ebazpenak.
- 7.-Eskaerak eta galderak.

1.-AZKENEKO AKTAREN ONESPENA.

2011ko abenduaren 1ean egindako bileraren akta ikusi ondoren, aho batez, ONARTU DUTE.

2.-ALBERTO ETXEBESTE AIZPIOLEA JAUNARI JARRITAKO ZEHAPEN ESPEDIENTEARI BURUZ.

Arantzako Alkateak, 2011ko urriaren 10eko 71. ebazpenaren bidez, Alberto Etxebeste Aizpiolea jaunak 6. poligonoko 248. lur zatiko Lorbidoko Bordan egindako obrari zehapen espedientea hasteko eta baimenarik gabeko obrak botarazteko agindua eman zuen.

Alberto Etxebeste Aizpiolea jaunak aurkeztutako berraztertze errekurtsa epez kanpo aurkeztu dela ikusirik.

Ikusirik 2011ko abenduaren 1ean Arantzako Udalak hartutako akordioa gai honi buruz.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) 2011ko abenduaren 1ean Alberto Etxebeste Aizpiolea jaunari buruz hartutako akordioa bertan behera uztea.

2) Alberto Etxebeste Aizpiolea jaunak aurkeztutako errekurtsa ez onartzea eta atzera botatzea, epez kanpo aurkeztua delakoz.

Ander Almandoz Indakoetxea jauna sartu da bilera aretora.

3.-BORTZIRIETAKO OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUEN MANKOMUNITATEA: ORDEZKARI BERRIAREN IZENDAPENA.

2011ko ekainaren 17an egindako bileran Arantzako Udalak erabaki zuen Jaime Iturria Mitxelena jauna izendatzea Udal honetako ordezkari gisa Bortzirietako Oinarrizko Gizarte zerbitzuen Mankomunitatean.

Alkateak proposatu du bere ordez Koldobike Gorostiza Uriguen andrea izendatzea.

Koldobike Gorostiza Uriguen andreak onartu du.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Bortzirietako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko ordezkaria Koldobike Gorostiza Uriguen andrea izendatzea.

2) Akordio hau Bortzirietako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatera jakinaraztea.

4.-ARANTZAKO EHIZA BARRUTIA:ORDEZKARIEN IZENDAPENA.

Arantzako Udalak 2002ko ekainaren 3an egindako bileran Arantzako ehiza barrutia eratze akordioa onartu zuen eta ehiza probetxamendua esleitzeko baldintzak onartu ere.

Baldintza horien artean, Batzorde Paritario Misto osatzen da, hainbat xede betetzeko.

Kontuan izanik Batzorde hori osatzen dutela ehiztarien elkarteko 4 ordezkari eta Arantzako Udaleko beste 4 ordezkari.

Kontuan izanik 2011ko ekainaren 11n Udal berria eratu zela.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Batzorde Paritario Mistoaren Arantzako Udaleko ordezkariak hauek izendatzea: Jaime Iturria Mitxelena jauna, Jose Ignacio Madariaga Vergara jauna eta Jose Fco. Javier Mitxelena Ordoki jauna.

5.-2012KO AURREKONTUA ETA PLANTILLA ORGANIKOA: HASIERAKO ONESPENA.

5.1.-2012ko aurrekontuaren egitasmoa eta exekuzio oinarriak ikusirik eta Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 276. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

Aho batez ERABAKI DUTE:

1) 2012ko aurrekontuaren eta exekuzio oinarrien espedientea hasiera batean onartzea.



ARANTZAKO UDALA

www.arantza.eu

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
☎ 948 634 005
☎ 948 634 192
arantza.udala@terra.es

2) Espedientea jendurrean hamabortz egunez paratzea, interesatuek aztertu eta bidezko erreklamazioak aurkez ditzaten.

5.2.- Arantzako Udaleko 2012ko plantila organikoa ikusirik eta Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 236. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

Aho batez ERABAKI DUTE:

1) 2012ko Arantzako Udaleko plantila organikoa onartzea.

2) Espedientea jendurrean hamabortz egunez paratzea, interesatuek aztertu eta bidezko erreklamazioak aurkez ditzaten.

6.-ALKATEAREN EBAZPENAK.

Alkateak azken bileratik emandako ebazpenen berri eman du (2011ko 94tik 100 arte eta 2012ko 1etik 2ra arte).

Jose Javier Mitxelena Ordoki jauna ateri da bilera aretotik.

7.-ESKAERAK ETA GALDERAK.

-Koldobike Gorostiza andreak azaldu du Bertizko Partzuergo Turistikoa egindako bilera 2012ko aurrekontuak aztertu dituztela. Bertan planteatu dira 2 aukera: alde batetik, Udaleetako kuotak jeistea, baina horrek eskatzen du entitate pribatu gehiago sartzea; eta bertzaldetik, 2011ko kuota berdina mantentzea. Aho batez, erabaki dute, Arantzako Udalak herriko etxe ruralekin bilera bat egitea gaia aztertzeko.

-Koldobike Gorostiza andreak azaldu du ere Bortzirietako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko 2012ko aurrekontua. Bertan jeitsi dira menpekotasun diru laguntzak eta diru laguntzaren partida ere jeitsi da. Aztertuko da partida honekin edo kontziliazio partidarekin laguntzen ahal den Pellettiki haur eskolari.

-Koldobide Gorostiza andreak aipatu du Pellettiki eskolari laguntzeko pailasoen emanaldi bat prestatzen ari direla Beran apirilaren 21erako. Azaldu du horrek dakarren gastuak

Bertzerik gabe, gaueko 22:30ak izanik, bilera amaitutzat jo dugu eta eztabaidatu eta erabakitakoa jasota geratzeko, agiri hau egin dut neronek, idazkariak, egiaztatuta.

O.E. ALKATEAK,
Jaime Iturria Mitxelena jn..



